



HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

2024ko urtarrilaren 4ko bilkura

Bi mila eta hogeita lau urtarrilaren lauan, arratseko zortzitan, Ortzaizeko Herri Biltzarra ohi bezala deitua izan-eta, legeak behartzen duen kopuruan bildu da, biltzarren ohiko lekuan, Jean-Marc OÇAFRAIN auzapeza lehendakari izanik,

Hor zirenak : CASIRIAIN Elena, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, HEGUY Antton, IDIART Claudine, IÑARRA François, IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie.

Barkatuak zirenak : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne.
Bilkurako idazkari izendatua izan da : PERUSANSENA Elodie.

Deialdiaren eguna : 2023ko abenduaren 22a

Afitxatze eguna : 2023ko abenduaren 22a

2. ERABAKIA: DIRULAGUNTZA ESKAERA ARROSATEGIA ETXEAREN XEDEA ALDATZEKO ETA ESKOLEKIN LOTURAN DIREN EREMU PUBLIKOEN SORTZEKO

(7.10 nomenklatura)

Auzapezak herri biltzarkideei azaldu die Arrosategia etxearen xedea aldatzeko proiektua, bereziki Herriko Etxea eta posta agentzia bertan aterpetzeko, eta eskolekin loturan lirategen eremu publikoak sortzeko.

Auzapezak proposatu du ahalik eta dirulaguntza gehien eskatzea Pirinio Atlantikoetako Departamendu Kontseiluari, DSIL , Funts Berde eta DETR programetan, baita beste erakunde diruztatzailerei ere.

Herri Biltzarrak, Auzapezaren azalpenak entzun eta eztabaidaturik,

- **ONARTU DU**, Arrosategia etxearen xedea aldatzeko eta eskolekin loturan diren eremu publikoak sortzeko proiektua,

- Dirulaguntzak **ESKATUKO DITU**, Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Kontseiluan DSIL 2024, DETR 2024 eta Funts Berde programetan, baita beste erakunde diruztatzailerei ere.

- **AURREIKUSIKO DITU**, Herriaren aurrekontuetan, lan horien osoki egiteko beharrezkoak diren kredituak,

- **BAIMENA EMAN DIO**, Auzapezari ekintza horren burura eramateko beharrezkoak diren neurrien hartzeko eta agiri oro izenpetzeko.

Kide kopurua : 15
Hor zirenen kopurua : 13
Balizko boz kopurua : 13
ALDE : 13
KONTRA : 0
ABSTENTZIO : 0

Gorago eman egun, hilabete eta urtean, presente ziren kideek erregistroa izenpetu dute.
Laburpen egiaztatuaren baliokoa.

ORTZAIZEN, 2024ko urtarrilaren 4an

Auzapeza,
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,
2024/01/08an publikatu edo notifikatu ondoan,
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2024/01/08an.